

**Pilota** ♦ Euskal Herriko Txapelketako finalerdian lehen puntua lortu zuten

# Nagore-Errandonea, serio

*Tirapu eta Armendarizi 22-17 irabazi zieten atzo, Bergaran*

Xabin Makazaga / Donostia

JORGE NAGOREK eta Inaxio Errandoneak lehen puntua lortu dute Euskal Herriko Txapelketako finalerdietan, Richard Tirapu eta Karlos Armendarizen aurka. Bergaran oso partidu serioa jokatu zuten bi bikoteek, jokaldi ikusgarri asko egin gabe baina tantoa beti ondo landuz.

Partidua gogotsu hasi zuten Nagorek eta Errandoneak, eta, aurrelariaren hiru sake tarteko, 6-1 aurreratu ziren. Tantoa gehienetan orekatua hasten zuten, baina Nagorek, ohi bezala, asko lagundu zion bere atzelariari, eta, azkenerako, estuasun handiak igaro arazi zizkioten Armendarizi. Orkoiengo atzelariari lan handia egitea egokitu zitzaion atzo, eta egin zuena baino gehiago ezin zaio eskatu. Atzean topatu zuten zuloa Nagorek eta Errandoneak, baina tanto gehienetan asko jokatu behar izan zuten zulo hori topatzeko. Tirapuk ere ez zion gehiegi lagundu Armendarizi, aukerako pilota askotan keinua egin bai, baina gero ez zelako errematera sartzen.

Hala ere, partiduko tantu ikusgarrienak Orkoiengo aurrelariak egin zituen. Aipatzekoak izan ziren 12-10ekoan egin zuen ezker gantxoa, pilota ezker paretera sartzea zioalarik, eta 18-15ekoan lortu zuen ezker zearra.

Partidu guztian markagailuan aurrea hartuta ibili ziren Nagore eta Errandonea, eta horrek konfiantza eman zien beren ohiko jokoa egiteko: serioa eta txorakeriarik



Jorge Nagorek eman zion erritmoa Bergarako partiduari, pilota ondo mugituz.

gabea. 6-1etik 7-5era hurbildu ziren Tirapu eta Armendariz, baina gero 10-6, 12-8 eta 17-10 aurreratu ziren Nagore eta Errandonea. Sakez min handia egin zuen Nagorek (zazpi tanto lortu zituen), eta txapa gainean moztean huts batzuk ere egin arren, berak agindu zuen tanto gehienetan.

Tirapuk eta Armendarizek defentsan egin zuten lanik onena, hartarako partidua egokitu zitzaielako. Pilotarik zailenetan ere ondo asmatu zuten, baina modu horretan

zail gertatzen da antoak zeure aldera ekartzea. Aurkariak, gainera, pilota asko arrimatu zuten ezker paretera, eta hor eginkizun zaila izan zuen Armendarizek.

Errandoneak ondo eutsi zion Orkoiengo atzelariari piloteoan, eta, nagusitzekotan, Errandonea bera nagusitu zen. Nagoreren laguntzarekin, jakina. Jarraian bi pilota ia erreboteraino bidali zituen Armendarizek (17-12 eta 17-13), baina, gainontzean, oreka izan zen atzealdean.

Nagorek eta Errandoneak aurrea hartu dute, beraz, Tirapu eta Armendarizen aurkako finalerdian. Usteak bete egin ziren atzo Bergaran, baina Orkoiengo bikoteak aurkari zailak, saiatuak direla erakutsi dute, eta lan errazik ez dute izango Nagorek eta Errandoneak. Atzo bezain serio jokatzen badute, ordea, faborito argiak dira.

Gaur Ariznabarreta-Arretxe eta Berasaluze VII:a-Beloki ariko dira Euskal Herriko Txapelketako finalerdietan, Najeran.

## Txokoan

### Berezkoen partida eten egin zuten hezetasunagatik

Beñat Intxauspek eta Paul Zugastik Andde Agerre eta Dermiten aurka jokatu zuten atzo Azkainen, berezkoen xapelgoan final-laurdenetan. Partida, ordea, eten egin zen Intxauspe eta Zugasti 30-26 aurreratuta zirelarik, hezetasunagatik. Gaur Donapaleun jokatu da bigarren final laurdena. Ezkurra eta Dermit ariko dira Muskarditz eta Mujikaren aurka, 17:00etan.

### Euskal Herriko pala txapelketan Urkia eta Torre irabazle

Urkiak eta Torre 45-38 irabazi zieten atzo Iriondo eta Rekalderi, Euskal Herriko pala txapelketaren zazpigarren jardunaldian. Hasiera estuaren ondotik 27-21 aurreratu ziren Urkia eta Torre, eta Iriondok eta Rekaldek, eta 28-28 berdindu zuten arren, hortik aurrera berriro Urkia eta Torre nagusitu ziren. Urkia izan zen onena.

### Ezkurra eta Imaz garaile erremonte finalaren errebantxan

Mendekua hartu zuten Ezkurra eta Imazek Galarran, Zeberio II.a eta Aizpururen aurka. Erremonte finalaren errebantxa 40-31 irabazi zuten, eta Ezkurra erakutsi zu lesioa erabat ahaztuta duela. Hasieran ez zuen atzerako pilotak gurutzatzen asmatu, eta aurkariak aurreratu ziren markagailuan. Gero, ordea, berak hautsi zuen partidua. Lau pilotariak oso txukun aritu ziren, ikuskizun ederra eskainiz.

### Bigarren mailako buruz buruko partiduak gaur

Euskal Herriko bigarren mailako manomanista atzo hasi zen Amurrion, Mendia / Odriozola eta Korta / Alonso partiduekin. Gaur, berriz, Galarza IV.ak Arroyo III.aren aurka jokatu du Eltziegion. Asperen manomanista profesionaleko lehen partiduan, berriz, Alberdi III.ak Gabarri II.aren aurka jokatu du gaur, Alberiten.

## Goñi II.ak pilotakadaka hautsi zituen aurkariak

Erredakzioa / Donostia  
MIKEL GOÑIK eta Joxe Mari Zezeagak 22-20 irabazi zieten atzo Titin III.ari eta Goñi III.ari, Logroñoako Adarragan. Goñi II.ak kolpe indartsua agertu zuen partidua guztian zehar, eta haren pilotakaden arabera mugitu zen markagailua.

Goñi II.a jaun eta jabe izan zen Titinen etxean, eta Tricioako aurrelariak ez zuen

jokoan nahi adina sartzeko aukerarik izan. Sakez bost tanto egin zituen Titinek, eta aukerako pilota izan zuenean ere erremate ikusgarrienik tantoa amaitzen asmatu zuen. Baina gehienez Goñi II.aren mendean ibili zen, jokoan sartu ezinik.

Jokoan Goñi II.a nagusitu arren, Titinek eta Goñi III.ak aukerakoa izan zuten garaipeña. 17-20 irabazten joan

ziren, baina azkeneko bost tantoak erreskan egin zituzten Goñi II.ak eta Zezeagak.

Goñi II.ak kolpe indartsua agertu arren, erregulartasuna falta izan zitzaion partidua erabat hausteko. Izan ere, aurreko koadroetatik jotako pilotakada bortitzeekin mendean hartu zituen aurkariak, baina hutsak ere behar baino gehiago egin zituen.

Ikuskizuna, hala ere, Goñi II.ak eman zuen, eta, gainera partidua irabazi egin zuenez, ez dago aitzakiarik jarzterik.

Gaur Espainiako Txapelketako beste partidu bat jokatu da: Olaizola I.a-Elkoro eta Etxaniz-Lasa bikoteek Eibarko astelenan dute hitzordua, eta finalerdiko lehen puntua izango dute jokoan.